

Bere hedapen-estrategiari jarraiki, Nortegasek (antzinako Naturgas) kanpaina unibertsal bat abiaraziko duela jakinarazten du; horrekin, Nortegasen gas naturaleko eta PGL kanalizatuko altak egiten duen instalatzaile orok komisio bat jasotzeko eskubidea izango du.

Horretarako, beharrezkoa da Nortegasen hornitzaile gisa alta ematea:

1. Erantsitako dokumentu sinplea bete ([alta-dokumentua](#))
2. Banku-ziurtagiri bat eskatu
3. Bi dokumentuak bidali helbide honetara: Asesoría.a.Expansion@nortegas.es

Kanpaina 2020ko abenduaren 30era arte emandako altei aplikatuko zaie eta alta berri bakoitzeko 250 euroko ekarpen bat egitean datza; alta berritzat hartzen da aurretik Nortegasen gas naturaleko/PGL kanalizatuko instalaziorik ez zuten etxebizitzetan egiten dena.

Hau da, ez da kasu hauetan aplikatuko:

- Eraikuntza berriko alta, non etxebizitzetan gas naturaleko instalazioa eginda dagoen.
- Aurretik Nortegasen gas naturala/PGL kanalizatua eduki duten etxebizitzetako alta.

Hileko alten kobrantzaren kudeaketa:

Behin instalatzaileak Nortegasen hornitzaile gisa alta emanda, altak kobratzeko, hau egin beharko du:

1. Hilero email bat bidali Asesoría.a.Expansion@nortegas.es helbidera, Hornidura Puntuaren Kode Unibertsala (CUPS) eta altaren helbidea adieraziz.
2. Nortegasen administrazio-babeseko taldeak egiaztatzen du alta ordaindu behar dela eta instalatzaileari bidaltzen dio dagokion erregistro-orria.
3. Instalatzaileak haxe bidaltzen du postaz:
 - a. Erregistro-orria eta kobratu beharreko zenbatekoaren faktura (gaur egun, 250 €).
 - b. Postaz, helbide honetara:
Nortegas
Kontxa Jeneralaren kalea, 20
48010 – Bilbo



Nortegasen kolaboratzaileak diren instalatzaileek ez dute ekintza hau burutu behar, bere datu guztiak ditugulako eta kanpainetan parte hartzen ari direlako dagoeneko.

Informazio gehiago eskuratzeko

900 902 938

Eskaerak jasotzeko emaila: Asesoria.a.Expansion@nortegas.es